

Maiatzak 17
homofobiaren aurkako eguna



3. eta 4. DBH



1. SARRERA

ZERGATIK OSPATZEN DUGU HOMOFIARIEN KONTRAKO EGUNA MAIATZAREN 17AN?

Homofobia eta transfobiaren kontrako eguna maiatzaren 17an ospatzen da, izan ere 1990eko egun jakin horretan, Osasunaren Munduko Erakundeak (OMEK) gaixotasunen zerrendatik kendu baitzuen.

Erabakia hark helburu bat baino gehiago du; batetik, homofobiaren kontrako sentsibilizazioa lortzea, eta bestetik, Nazio Batuen Erakundeak (NBEK) homofobiaren kontrako egunari onespina ematea. Eskiera honekin lgtbko kolektiboek¹ ez ezik, erakunde publiko batzuek ere bat egiten dute.

Oraindik, joera sexuala eta genero-identitatea² delako diskriminazioa NBEk onartu ez badu ere, aurrerapausoak eman ditu, besteak-beste duela hilabete batzuk, Biltzar Orokorrean, homosexualitatea ez zigortzeko proposamena eztabaidatu zuen, % 35-eko onarpena izan zuelarik.

Aurrerapausoa bai, baina homofobiaren kontrako lanik badugu! Horretaz konturatzen lagunduko dizuten jarduera labur batzuk aurkituko dituzu jarraian. Eta horretaz jabetu ez ezik, homofobia behin-betikoz baztertzearen aldeko lana denon esku, baita zeurean ere, dagoela jabetzeko lagungarri gertatuko zaizkizulakoan gaude.

HOMOFIARIEN DEFINIZIOA

Zein da zure ustez **homofobiaren** definizioa?

¹ Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Kolektiboek

² *Genero-identitatea*: pertsona batek bere burua zein generoarekin identifikatzen duen (gizona edo emakumetzat jotzen du bere burua, bere sexu biologikoa kontrakoa izanda ere).



2. ISTORIA

Mikelek 15 urte ditu. Institutuan pozik zegoen orain gutxi arte, orain ez dago gustora. Bere gelako kide batek, Koldok, irainak idatzi zituen bere mahai gainean. Idatzitako hitzak marikoia, maritxua eta antzekoak dira.

Mikelen lagunik onenak, Andoni eta Joseba dira eta azken aldian berarengandik urrundu dira beldur direlako. Amaia eta Miren, Koldok egindakoarekin haserre daude eta Xabier tutoreari kontatzea pentsatzen ari dira. Mikel gaizki pasatzen ari da eta etxean ere bere gurasoek, Maria Luisa eta Antonio, arraro dagoela igarri dute.

Gaur irainak hitzez bota dizkio eta gelako mutil gehienak parrez ari dira, Andoni eta Joseba barne. Institutuko atezainak, Iker, ere garrasi eta parrak entzun ditu.

Istorioaren pertsonai bakoitzari dagokion papera eman:

Erasotua		
Erasotzailea		
Ingurua	Ikasleak	
	Irakasleak eta institutuko langileak	
	Gurasoak	



3. ISTORIOAREN INGURUKO GALDERAK

1. NORK DAUKA INDAR GEHIAGO?

2. NORK OSATZEN DU GEHIENGOA?

3. NOREN ESKUTAN DAGO KONPONBIDEA?

4. MIKELEN LAGUNA BAZINA ZER EGINGO ZENUKE?

